

Gondra Barandiarán Fundazioa-Museoa
Bekak

2015/2016



FUNDACIÓN
GONDRA
BARANDIARÁN

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

DEIALDIA

Gondra Barandiarán Fundazioak eta Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak zenbait arlotako 7 prestakuntza-bekatarako deia egiten dute, gazteei laneratzeko laguntzeko, autoprestakuntza sustatzeko eta gazteak lanbide-testuingurura hurbiltzeko asmoz. Programa Gondra Barandiarán Fundazioaren babesari esker jarri ahal izan da abian. Besteak beste, honako hauexek dira fundazio horren sorreraren helburuak: kulturaren, prestakuntzaren edo pentsamendu-sorkuntzaren arloko jarduerak sustatzea eta antolatzea eta prestakuntzarako laguntzak ematea.

BEKAREN EZAUGARRIAK

- Beka 2014ko urriaren 1ean hasiko da, eta bederatzir hilabete iraungo du. Museoa emandako beka batzuk edo guztiak luzatzeko erabakia hartu ahal izango du, bekadunekin ados jarri gero. Guztira, bekaren iraupena ezin izango da hamar hilabetetik gorakoa izan.
- Lan-ordutegia goizekoa izango da, 09:00etatik 14:00etara.
- Honako hauxe izango da oporraldia: 2015eko abenduaren 24tik 2016ko urtarrilaren 6ra eta 2016ko martxoaren 21etik 28ra (biak barne). Era berean, EAEn 2015erako eta 2016rako zehaztutako lan-egutegiko jaiegunak ere ezarriko dira.
- Bekaren zenbatekoa hileko 500 euro gordinekoa izango da.
- Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioak Gizarte Segurantzaren emango dio alta bekadunari, programak irauten duen bitartean. Horrez gain, programak irauten duen bitartean, museoak honako aseguru hauek ere kontratatuko ditu bekadunaren alde: ustezko gertakizunak estaltzeko istripu-asegurua eta gauzei edo pertsoneri eragindako ustezko kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko asegurua.

DEIALDIAREN IRAUPENA

- Deialdia 2015eko maiatzaren 11tik 24ra egongo da zabalik (biak barne). Adierazitako datetatik kanpo ez da inolako eskabiderik onartuko.

IZANGAIEN BETEKIZUNAK ETA AGIRIAK**Betekizun orokorrak:**

- Izangaiak pertsona fisikoak izango dira beti eta kasu bakoitzean eskatutakoaren tituludunak izango dira beka hasi orduko. Deialdia ixten denean ezin izango dira 30 urtetik gorakoak izan eta gaztelaniaz badakitela egiaztatuta beharko dute.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- NANaren edo agiri baliokidearen kopia.
- Espediente akademikoaren berri ematen duen curriculum vitae.

Egokia dela uste izanez gero, museoak edozein unetan eskatu ahal izango ditu aurkeztutako agiriaren originalak.

ESKABIDEEN AURKEZPENA

- Eskabideak museoaren webgunean (**hemen**) horretarako atondutako online eskabide-orriaren bidez aurkeztu beharko dira.
- Izangaiak ezin izango dituzte bi arlo baino gehiago aukeratu.
- Kontsultak egiteko edo zalantzak argitzeko:
Zerbitzu Orokor eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetza
Tel. 94 439 60 60

HAUTAKETA PROZESUA

- Hautaketa-prozesuko aurretiazko fasean, museoak egiaztatuta egingo du oinarrietan zehaztutako betekizun orokorrak eta bereziak betetzen direla. Aurretiaz zehaztutako epean agiriak aurkezten ez dituen izangaiak bost eguneko epea izango du akatsa zuzentzeko. Epe hori igarotakoan, kanpoan geratuko da zuzenean, hori egin ezean.
- Prozesuko lehenengo fasean, museoak izangaiaren espediente akademikoa eta gaitasunak hartuko ditu kontuan.
- Prozesuko bigarren fasean, ordea, banakako elkarrizketa egingo da. Museoa bere ustez egokiak diren izangaiak egingo die elkarrizketa.
- Lehenengo fasea gaintzen duten izangaien izenak zerrenda batean agertuko dira banakako elkarrizketaren egunarekin eta orduarekin batera. Zerrenda hori museoaren webgunean argitaratuko da (**hemen**).
- Edonola ere, izangaiak banan-banan jakinaraziko zaie bigarren faserako hautatuak izan direla.

IZANGAIEN HAUTAKETA

- Elkarrizketetako fasea amaitu ondoren, museoak titularren eta ordezkioen zerrenda egingo du, programak irauten duen bitartean hasieran edo ezustean gertatutako ustezko ukoak estaltzeko. Zerrenda hori museoaren webgunean argitaratuko da (**hemen**).
- Museoak onuradunari 2015eko ekainaren 26a baino lehen emango dio ebazpenaren berri, eta beka guztiak edo zati bat esleitu gabe ere utzi ahal izango ditu.

BATERAEZINTASUNAK

- Beka hauek prestakuntzarakoak baino ez dira izango, eta, zehaztutako lan-ordutegian eraginik ez badute, honako hauexekin izango dira bateragarriak: ordaindutako edozein lan, beka, bidaia-poltsa edo beste erakunde baten diru-laguntza.
- Beka behin baino ezin izango da lortu.
- Aldez aurretik museoan esleitutako beste prestakuntza-beka batzuetako onuradunek ezin izango dute beka hau eskatu.

BEKADUNEN BETEBEHARRAK

- Hautatuek beka berariaz onartu beharko dute, aurretiaz emango zaien posta elektronikoko helbidera bidalitako mezuren bidez. Horretarako, bost egun naturaleko epea izango dute, museoak beka esleitu diela jakinarazten dietetik. Aurretiaz zehaztutako epean beka onartzen ez badute, uko egin diotela ulertuko da, eta aurretiaz hautatutako zerrendako lehenengo izangaiari esleitu zaio.
- Beka onartzean, hitzarmen pribatua sinatu beharko da museoarekin.
- Era berean, hitzarmen horren esparruan, bekadunek isilekotasunerako konpromisoa ere sinatu beharko dute museoarekin.
- Bekadunak behar besteko baimena emango die Gondra Barandiarán Fundazioari eta museoari, bere izena haien webguneetan eta memoriatan agertu dadin.
- Bekadunek behar besteko konpromisoa hartuko dute, programan zehaztutako eginkizunak betetzeko eta saileko buruaren ustez egokiak diren jarduera guztiak garatzeko.
- Bekadunek laneko segurtasunari eta higienerari buruzko arauak ezinbestean eta berehala bete beharko dituzte, euren eta museoaren zerbitzuak garatzen dituztenen osotasun fisikoan baitute eragina.
- Bekadunek oinarri hauetan zehaztutako ordutegia bete beharko dute.
- Programako partaidetza ez da inolaz ere bekadunaren eta museoaren arteko inolako lan-harremantzat hartuko.
- Eskabidea aurkeztean, izangaiak berariaz onartu beharko ditu museoak oinarri hauetan adierazitako baldintzei buruz hartu ditzakeen erabakiak.

BEKAREN GARAPENA

- Onartutako eskatzaileek kasuan kasuko saileko arduradunaren ikuskaritzapean garatuko dute euren jardura. Arduradun horrek, hain zuzen ere, bekadunaren tutoretza eta jarraipena egingo ditu, eta dagokion txostena aurkeztuko du programaren amaieran.
- Halaber, bekadunek ere amaierako memoria aurkeztu beharko dute.
- Bi agiri horien arabera, museoak bekadunen aldeko ziurtagiria egingo du, beken programako helburuak bete egin direla egiaztatzeko.

BEKAREN ETENDURA ETA AMAIERA

- Bekadunak bere betebeharrak betetzen ez baditu, museoak behar besteko ahalmena izango du bekari amaiera emateko. Nolanahi ere, beste ekintza batzuk ere garatu ahal izango ditu arlo horretan.
- Indarrean dagoen bitartean, bekadunak bekari uko egin ahal izango dio. Horretarako, gutxienez 15 egun natural lehenago jakinarazi beharko dio museoari. Uko egitean, bekako zuzkidura ekonomikoko hilekoen ordainketa etengo da.

ONARRIEN ALDAKETA

- Museoak oinarri hauek aldatzeko erabakia hartu ahal izango du. Aldaketek eragina eta balioa izan ditzaten, gainera, nahikoa izango da bere webgunean argitaratzea (**hemen**).

DEITUTAKO PLAZAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZA SAILA

Museoko ekonomia, finantza eta zerga arloko kudeaketa garatzen du.

Arduraldia

- Kontabilitateko eragiketak erregistratzen laguntzea.
- Diruzaintza, bezeroak, hornitzaileak eta ibilgetua kudeatzen laguntzea.
- Aurrekontua kontrolatzen eta zergak likidatzen laguntzea.

Betekizunak

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziatura, gradua edo diplomatura edo antzeko titulazioak edukitzea.

Informatikako gaitasunak

- Word eta Excel.

Zer balioetsiko den

- Euskaraz eta ingelesez jakitea.

ARTXIBO SAILA

Museoko agiri administratiboak eta fondo historikoa zaindu eta zabaltzen ditu: aktak, memoriak, planoak, argazkiak, gutunak, erakusketetako karpetak...

Arduraldia

- Agiriak katalogatzea, datu-baseak eguneratzea eta *online* baliabideak erabiltzea.

Betekizunak

- Humanitateetako edo Dokumentazioko lizentziatura edo gradua edo antzeko titulazioak edukitzea.
- Agiri-fondoak sailkatzen eta artxibo-prozedurak garatzen jakitea.

Informatikako gaitasunak

- Datu-baseak eta artxiboak kudeatzeko programak.
- Eskaner bidezko digitalizazioa eta irudien tratamendu digitala.

Zer balioetsiko den

- Euskal arteari buruzko ikasketak edukitzea.
- Euskaraz, ingelesez eta frantsesez jakitea.

LIBURUTEGI SAILA

Artean espezializatutako bilduma dokumental zabala zaindu, kudeatu eta hedatzen du. Informazioa kudeatzeko proiektu bereziak garatzen ditu ikerkuntza zientifikoari begira.

Arduraldia

- Arterder web proiektuan laguntzea. Euskal Arteari buruzko Datu Basea.
- Zenbait fondo dokumental kudeatzea eta sailkatzea.
- Liburutegiko zereginak eta zerbitzuak garatzen laguntzea.

Betekizunak

- Dokumentazioko edo Artearen Historiako lizentziatura edo gradua edo Bibliotekonomiako eta Dokumentazioko diplomatura edo antzeko titulazioak edukitzea.

Informatikako gaitasunak

- Word, Excel, Access eta datu-baseak.

Zer balioetsiko den

- Agiriak zenbait euskarritan katalogatzen jakitea.
- Informazioa kudeatzeko sistemak eta, batez ere, Liburutegia Kudeatzeko Absys Sistema erabiltzen jakitea.
- Euskaraz eta ingelesez jakitea.

BILDUMA SAILA

Artxibo dokumentala zaindu eta bildumako lanen erregistroa eta inbentarioa egiten ditu. Bertako mugimenduak kontrolatu eta aldi baterako erakusketetarako maileguak kudeatzen ditu.

Arduraldia

- Datu-basea dokumentatzea, ikertzea eta eguneratzea.
- Dokumentazio grafikoa garatzea.
- Aldi baterako erakusketetarako maileguak kudeatzen laguntzea.

Betekizunak

- Dokumentazioko edo Artearen Historiako lizentziatura edo gradua edo antzeko titulazioak edukitzea.

Informatikako gaitasunak

- Word, Photoshop eta datu-baseak.

Zer balioetsiko den

- Argazkilaritzarako eta irudien tratamendu digitalerako gaitasuna edukitzea.

HEZKUNTZA SAILA

Jarduerak eta programak garatzen ditu, museoko bildumaren eta aldi baterako erakusketetan parte hartzen duten lanen ezagutza eta gozamina sustatzeko.

Arduraldia

- Hezkuntzako proiektuak garatzen laguntzea.
- Aldi baterako erakusketetako jarduerak garatzen laguntzea.
- Hezkuntza-materiala dokumentatzea eta katalogatzea.
- Jardueren buruzko memoriak egiten, inkestak iraultzen, jardueren jarraipena egiten eta amaierako ebaluazioa garatzen laguntzea.
- Kontsultak eta eskaerak artatzea.

Betekizunak

- Artearen Historiako edo Arte Ederretako lizentziatura edo gradua edo antzeko titulazioak edukitzea.

Informatikako gaitasunak

- Word, Power Point, Photoshop eta datu-baseak.

Zer balioetsiko den

- Hezkuntza edota Komunikazioko graduondokoa edo masterra edukitzea.
- Euskaraz oso ondo jakitea eta ingelesez edota frantsesez jakitea.

ERAKUSKETA SAILA

Museoko aldi baterako erakusketak programatu, kudeatu, koordinatu eta antolatzen ditu.

Arduraldia

- Erakusketetako proiektuak dokumentatzen, maileguak abian jartzen eta osorik kudeatzen, aldi baterako erakusketak erregistratzen eta aretoa muntatzen laguntzea.

Betekizunak

- Artearen Historiako edo Arte Ederretako lizentziatura edo gradua edo antzeko titulazioak edukitzea.

Informatikako gaitasunak

- Word, Excel, Access eta Photoshop.

Zer balioetsiko den

- Ingelesez oso ondo jakitea.
- Museologiako graduondoko ikastaroak edo antzekoak eginda edukitzea.

ARGITALPEN SAILA

Museoaren beraren argitalpenak koordinatu eta egiten ditu, baina, batez ere, aldi baterako erakusketetako katalogoak eta buletin zientifikoa. Horrez gain, museoko gainerako sailei ere laguntzen die testuak nahiz irudiak zuzentzen eta zenbait inprimakiren ekoizpenaren jarraipena egiten.

Arduraldia

- Sailari argitalpenen ekoizpenerako zenbait zeregin garatzen laguntzea: argazkilaritzako materialen eskabidea, testuen zuzenketa, hornitzaileen koordinazioa...

Betekizunak

- Humanitateetako, Filologiako, Artearen Historiako edo Komunikazioaren Zientzietako lizentziatura edo gradua edukitzea.
- Euskaraz eta ingelesez oso ondo jakitea.

Informatikako gaitasunak

- Word eta Excel.

Zer balioetsiko den

- Edizio masterra edo antzeko titulazioak edukitzea.
- Maketatze eta argazkietan utituak egiteko programak erabiltzen jakitea (Photoshop).
- Beste hizkuntza batzuk jakitea.